



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

# COMUNIDADES ACOGEDORAS

IMANOL ZUBERO

"ALKARTE ABEGITSUAK,  
PREMINA ETA AUKERA"



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

# «ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

## TALDEAN SAKONTZEKO GIDOIA

### A 4 IDEIA NAGUSI...



#### BAKARDADEA

"Aldatu dana, gizartea da eta honek, hainbat alderditan, errazago egin deuskuz lokarriak (edo hainbat lokarri) eta, beste batzuetan, askoz ere korapilatsuago bihurtu ditu, eta hainbat kasutan, ia ezinezko be egin dituala esango neuke."



#### LOKARRIAK ESTUTU, BESTE PERTSONA BATZUEKIKO HARTU-EMONA SUSTATU

"Gizarte, alkarte lokarri sendoak eratzeko eta horreei eusteko, ezinbestekoa da eremu egokiak, sasoi egokiak eta nahikotasunezko baldintza materialak (ekonomikoak) izatea. Baina benetan gertatzen dana (...) doako bategiterako eremuak merkataritzaren barruan geratzen dirala. Ez dogu ez denporarik ezta eremurik be, bategite pozgarri eta askea bizitzeko, bategitea bera helburutzat hartzeko".



#### KONPONDU ETE DAITEKE ALKARTEA?

"Baietz uste dot. Horretarako, ados jarri behar dogu alkarte hitzari emongo deusagun adieran. (...) barruko konplexutasun eta aniztasunari, kanpoko errealidadeei eta alkarteari berari zabaltzearen ikuspuntutik irudikatutako eta eraikitako alkarte legoke. Ez da bere baitan ixten, ahalik eta gehienak barne hartzen, abegitsu, harreragile, solidario, zerbitzari izaten saiatzen da. (...) alkarte sasoi eta leku honetarako barrero irudikatuz".



#### HARTU

"Danok ezagutzen doguz, besteak beste, hainbat bider erabili doguzalako, ondorengo esamoldeok: "nire etxera gonbidatzen zaitut", "zeure etxean lez sentitu zaitetz", "zeure etxean zagoz". Harrera, irekitasuna, abegia adierazten daben esamoldeak dira. Baina ez dabe zehatz-mehatz hori esan gura: Mailaketa adierazten dabe, gitxienez inplizitua, norbere etxearen zabaltzean. Lehenengoak, "nire etxera gonbidatzen zaitut", argi eta garbi erakusten dau etxearen jabe legitimoaren eta honek bere borondate hutsez gonbidatzen dauanaren arteko aldea; bigarrenak, "zeure etxean lez sentitu zaitetz", beste urrats bat emoten dau, gonbidatua desbardin bihurtuz, eta jabeak dituan eskumenen antzekoez gozatzera bultzatzen dau; hirugarrenak "zeure etxean zagoz", bizilekua konpartitzeko ekintza hori betetasunera daroa, pertsona biak bardin eginez".




ACOGER



PROTEGER




PROMOVER




INTEGRAR




## B ETA DEI BAT


 Eta, zergaitik aprobetxatu ez Garizuma aldia ikuspuntu honetatik geure burua aztertzeke? Eta zergaitik hausnartu ez adiskide eta senidez osatutako alkarte izateko bideei buruz?

## C HAINBAT GALDERA BAKARKA EDO TALDEAN HAUSNARTZEKO


 Egokia deritxogu Imanol Zuberoren azterketari? Guk geuk, bardin bizi ete dogu?

 Ze sentipen eragiten deutsu aztertu dogun errealidadeak (bakardatea, bakartzea, alkarte ahulduak...)?


 Entzundakoa kontuan hartuta, ba ete da gure alkartean aldatu beharreko konturik? Ze aldatu beharko geunke?


 Aztertu daigun zelan egiten dogun harrera. Zer dinotse gure alkarteak bertara hurreratzen diranei?:

- o Nire etxera gonbidatzen zaitut.
- o Zeure etxean lez sentitu zaitez.
- o Zeure etxean zagoz.

 Alkarte abegitsu izateko ideia eta proposamenak.

## D DANON ARTEAN

 15/20 minutu alkarrizketan jarduteko.

 Ondorioak.



**ZELAKO  
ALKARTEA GARA?**



**ZELAKO ALKARTEA  
IZAN GURA DOGU?**




**ZER EGIN DAIKEGU  
LORTZEKO?**

## **D** OTOITZA



Manu Escuderoren "Con otros", entzungo dogu.



**ENTZUTEKO,  
KLIK EGIN IRUDIAN**



Alkarregaz esango dogu...

### **ORACIÓN POR UNA COMUNIDAD FRATERNA**

Jauna, lagundu eiguzu

ETXEA DAN ALKARTE izaten: anai-arrebok adiskide eta senide lez batzeko leku non bakotxak bere egia esan daian sakontasunez eta konfiantzaz.

SANTUTEGI DAN ALKARTE: gure artean dagoan biziaren

Jainko Jaunagaz bat egiteko leku.

ALKARTE ZERBITZARI: lagun hurkoaren esanetara.

ALKARTE MISIOLARI: beti Zu, Jesus Jauna,

iragarteko prest. Jesus Jauna,

Espiritu Santuaren presentziaz betetako alkarte egin gaizuz, behartsuen aldeko konpromisoa eta zerbitzua lehenesten dituan alkarte,

danak aurrerexi barik hartzen dituan alkarte abegitsu,

bategite eta entzutea gauzatzeko eremuak sortzen dituan alkarte, alkarte otoizlari.

Eta alkarteko kide guztiak bertan bizi dan Jainkoagaz bat eginik bizi eta sustatu daitezala.

Egin gaizuz alkarte gogotsu, biziari abesten deustan alkarte,

edertasunaren aurrean txunditzen dan alkarte,

misterioaren aurrean adi dagoan alkarte

eta maitasunezko egintzen bidez

Erreinua iragarteko prest dagoan alkarte.